

PELLO ZUBIRIA

## Sowetoko 'Robin Hood' beltz argi-lapurrak

Mundutarren erdiak aspalditik nozitzen du energiaren krisia. Petrolioia edo argindarra eskuratzeko zailtasunak ez daukate urrutiko parajeetako biztanleek soilik, hiri modernoetako auzo askotan eguneroko ogia da energiari eza. Soweton bezala, ahal den eran moldatu behar.

ELEKTRIZITATEA 'PIRATEATZEA' mundu osoan da ohikoa, eta herrialde txiroetan aski orokortua. Ez da hain usu ikusten, ordea, korporazio handiari energia ostu eta jende behartsuari berreskuratzen dion pirata elkarte militantea.

Soweton dago bat, Hego Afrikako hiri famatuan, hango *Mail & Guardian* egunkariak ikusi ditu bere kideak lanean eta elkarrizketatu ere bai. Levy Nhlapo argiketari gaztearekin ibili da Karabo Keepile kazetaria Sowetoko Diepkloof auzoan, "konponketa lanetan". Etxe txiki batera hurbildu dira, Nhlapok ireki du argindarraren kontagailua daukan kutxa plastikozkoa, etenda dau den harien arteko "zubia" egin, txinparta ale batzuk atera dira eta kito: etxeok badaukate berriro elektrizitatea.

Nhlapo *Soweto Electricity Crisis Committee* (SECC) elkartearen ari da bolondres. Militante talde honek eskua luzatzen die fakturak ordaindu ez izanagatik argindarra edo ura moztu dieten herritar txiroei. Korporazioek piratatzat daukatela? Beren uestez teknikari konprometitua dira.

Bitxia da SECCk bulego irekia izatea, egun argitan diharduten seinale. Gela txiki bat baino ez omen da, mahaia, bi aulki eta fotokopigailua, baina Sowetoko erdigunean

dago. Thabo Molefe bozeramaileak nahi adina informazio eskaini dio kazetariari. "Ez da egunik elektrizitatea eten dioten dozena bat herritar baino gutxiagok deitzen digunik. Bulego hau zabalik izateak erakusten du zenbateraino den beharrezkoa gure lana".

Orain artean SECCko kide bakar bat ez dute auziperatu agintariak. Areago, tarteka elkarrizketan eta negoziatzen aritzen dira elkarte eta Sowetoko argindarra kontrolatzen duen Eskom enpresako buruzagiak. Bitxikeria bat gehiago eransteko, elkarteak mini-bulegoa dauka Eskomen aurrez aurre, *apartheidaren* kontrako borrokalari famatua izandako Chris Hani-ren izena daraman karrikan.

SECC bere bazkideek finantzatzen dute hein batean eta gainera baditu kanpoko laguntzak, Johannesburgeko *Rosa Luxemburg Foundation*-en eta *War on Want* (Gabeziari Gerra) Gobernu Kanpoko Erakunde ingelesarenak.

Eskom argindar konpainiaren bozeramaileek bestelako kontuak aipatzen dituzte. Hego Afrika osoan urtean 2.800 milioi *rand* (250 milioi euro) galtzen omen dute pagatu gabeko fakturengatik. Erdia baino gehiago, 1.800 milioi *rand*, Soweton geratzen dira zorretan. Hego Afrikan kontsumitutako argindarraren

Johannesburgeko *Indymediak* dauka argazki hau sarean ipinita. Eskom argindarraren kontrako manifestazioan ari dira jendeak Sowetoko auzune batean, poliziak -foto honetan ez dago baina *Indymediako* irudi sailean bai- hurbil dituztela. Lehen planoko emakumeak tresna berezia erakusten digu: konpainiak Sowetoko pobre jendeari argindarra konektatzen dienean aurrez ordaindutako txartelez dabilen kontagailua ezartzen die. Sakeleko telefonoetako *pre-pago* sistema, elektrizitatearentzako egokituta. Energiaren krisiaren ondorioak aspalditik nozitzen dira munduko leku askotan, klimaren aldaketarenak adina edo gehiago. Energia garestitzeak itotzen ditu milioika familia, batez ere munduaren Hegoaldean baina baita herrialde aberatsetan ere

%10 legez kontra hartzen omen da. Eta arriskutsua omen da, edonor hil dezakeelako oker egindako konexio batek. Eskomek herritarren on beharrez berriro eteten ditu.

SECCkoek erantzuten dute haien *txispas* borondatezkoek ondo egiten dituztela tranpak, inor ez dela inoiz hil edo zauritu horrelakoetan. SECCk ez duela nahi hau besterik: ANC alderdiak 2000. urtean agindu zuena egia bihurtzea, argindarra denentzako dohainik izatea alegia.

ANCren promesak, ordea, bazuen azpian letra txikerragorik eta legeak etxe bakoitzari debalde bermatzen dizkio lehenbiziko 50 kilowattak, doi-doi telebista txikia, irratia eta plantxa berotzeko lain. Eta gainerako argindar guztiak igoera handia jasan du gozotik.

### Ilunpeak pizten mamuak

Datozen hiru urteetarako Eskomek proposatu du tarifak %45 garestitzea. Honek are familia gehiago kondenatuko ditu ilunpera. Familiak gain, ordea, udalak, ikastetxeak eta ekipamendu publiko asko aurkituko dira ezinean.

Egoera oso zailean daude auzo txiroetako ikastetxeak. Diru sarren zati bat ikasleen familietatik datorkie, eta eskola askotan ikasleen erdia baino gehiago da pagatu ezin duena. SECCko Levy Nhlapok



Deretxoa balute ere berdintsu, ezingo lukete-eta ordaindu. Entxuferik ez da. Sakeleko telefonoa karrikako denda batean kargatzen dute, pagatuta noski, beste askorekin batera ilaran luze itxaronda.

Kozinatzeko tresna parafinaz dabil. Hozkailurik ez da; haragia edo arraina erostekotan, egunean bertan jatekoa edo potoan. Kanpoan ilundu orduko, etxeko argi izpi bakarra kandelarena da. Ilundu bezain fite denak ohera. “Aspertzen bagara, batzuetan elizako kantuak abesten ditugu”

Mathapelo neskatxa zaharrenak etxeko lanak nekez egin ditzake bertan: besteak baino goizago doa eskolara, hango lanparak aprobeztatzen. Mahairik ez da, ez ikasteko eta ez jateko. Mathapelo goizeko 05:30etan jaikitzen da, karrikako iturritik ura ekartzera. Ohe gainean ahizpa txikia garbituko du, zinkazko kankartan, ondoren uniformea jantzita pertxent eskolaratzeko.

Shoni tikiak telebista maite du, batez ere *Generations* saila eta filmak. Auzokoena ikusten du ataritik. “Baina ez ditugu bizilagunak gogaitu nahi eta kanpotik erreparatzen diogu”. Elizara joatea da iluntasunari ihes egiteko beste modu bat. “Maite dut eliza –dio Mavisek– han bestelako gauzez pentsa baitezaket”. Familiarekin egin bideoak zirrara eragiten du *Mail&Guardian* webgunean.

Erreportajearen Levy Nhlapo elektrikari kortsarioak diotsu: “Jesus berriro itzuli arte segiko dugu. Ez gara besoak tolestaturik egongo hura noiz etorriko zain”. ■

kazetariari aitortu dio berari egokitu zaiola argindarraren konexioa *puenteatzera* joatea pagatu ezinean zebiltzan komertzio txikietara, parrokiatara, haurtzaindegietara, medikubaten kontsultara...

Hala ere, familien etxebizitzak kolpatu ditu batik bat energiaren garestitzeak. Ulertzeko adina ingeles dakienari on egingo lioke *Mail&Guardianeko* bi kronika txiki irakurtzeak. Batean erdi mailako emakume batek, Yolandi Groenewald-ek, kontatzen du nola ari diren familia asko energia kontsumoa kontrolatzen. “Kiloak galdu nahian” izenburupean, hitzekin jolas polita egiten du: ez da uda ondoren jendea argaldu nahian ari dela, baizik eta kilowattak nola

aurreratuko saiatzen. Euskarazko prentsan intentzio oneko kazetariok idazten ditugunak bezalako gomendio askoren inguruan ari da Groenewald. Bainua kontrolatu, argindarraren ordeza gasa erabili, ontzi-garbigailua buruz usatu, kontsumo urriko bonbillak ipini...

Kontrastea egiteko, Karabo Kee-pile kazetaria Mavis Sebola emakume gaztearen etxean egon da, argindarrik gabe nola bizi daitekeen ezagutzen. Tituluak dio: “Kantatzek uxatzen du iluntasuna”. 37 urteko ama da Mavis, Mathapelo (15) eta Shoni (8) alabekin bizi dena.

Gela bakarreko etxola zinkazko eta zurezkoan bizi dira. Baimenik gabe eraikia denez, argindarrik ez.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

